


**EUSKAL HERRIKO
AGINTARITZAREN
ALDIZKARIA****BOLETÍN OFICIAL
DEL
PAÍS VASCO**

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZAdministración: c/ Donostia-San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

	Orrialdea		Página
LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXE BIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA		DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE	
68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguru- neen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei bu- ruzko arau teknikoak onartzen dituenak.		DECRETO 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios pú- blicos, edificaciones y sistemas de información y co- municación.	
I. Alezatia		Fascículo I.	
I. Eranskina	2	Anejo I.	3
II. Eranskina	22	Anejo II.	23
II. Alezatia		Fascículo II.	
III. Eranskina	49	Anejo III.	51
IV. Eranskina	90	Anejo IV.	91
V. Eranskina	106	Anejo V.	106

I. ERANSKINA.
PARAMETRO ANTROPOMETRIKOAK.

1. *artikula.*– XEDEA.
2. *artikula.*– DEFINIZIOAK.
3. *artikula.*– IRISGARRITASUN-ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONA-TALDEAK.
 - 3.1.– IBILTZEKO GAUZA DIRENAK.
 - 3.2.– GURPIL-AULKIA ERABILTZEN DUTEN PERTSONAK.
 - 3.3.– SENTSORIALAK.
 - 3.4.– BESTELAKO PERTSONA-TALDEAK.
4. *artikula.*– POPULAZIOAREN PARAMETRO ANTROPOMETRIKOAK.
 - 4.1.– POPULAZIO HELDUA (18 URTETIK 65ERA BITARTEKOA).
 - 4.2.– EZ GAITASUN PSIKIKOA DUEN POPULAZIOA.
 - 4.3.– PERTSONA ADINDUNEN (65 URTETIK GORAKOEN) POPULAZIOA.
 - 4.4.– GURPIL-AULKIA ERABILTZEN DUTEN PERTSONEN POPULAZIOA.
5. *artikula.*– GURPIL-AULKIAK, MAKILAK, UKONDO-MAKULUAK ETA ESKORGAK.
 - 5.1.– ESKUZKO ERAGINGAILUA DUEN GURPIL-AULKI ESTANDAR BATEN DIMENTSIO NAGUSIAK MILIMETROTAN.
 - 5.2.– ESKUZKO ERAGINGAILUA DUEN GURPIL-AULKI ESTANDAR TOLESTU BATEN DIMENTSIO NAGUSIAK MILIMETROTAN.
 - 5.3.– FUNTZIONAMENDU ELEKTRIKOKO GURPIL-AULKI BATEN DIMENTSIO NAGUSIAK MILIMETROTAN.
 - 5.4.– MAKILEN ETA UKONDO-MAKULUEN DIMENTSIO NAGUSIAK MILIMETROTAN.
 - 5.5.– ESKORGEN BATEZ BESTEKO DIMENTSIOAK MILIMETROTAN.
6. *artikula.*– NEURRI FUNTZIONALAK.
 - 6.1.– HELMEN FUNTZIONALEKO DISTANTZIA.
 - 6.1.1.– ESKUBANDAK ETA EUSTEKO ELEMENTUAK.
 - 6.1.2.– IKUS-KOMUNIKAZIOKO MODULUAK.
7. *artikula.*– MAKILAK ERABILTZEN DITUEN PERTSONA BATEN MUGIMENDUAK.
 - 7.1.– NORABIDE ZUZENEKO MUGIMENDUAK.
 - 7.2.– ATE BATETIK IGAROTZEKO BERARIAZKO MUGIMENDUAK.
8. *artikula.*– MUGIMENDUAK GURPIL-AULKI BATEAN.
 - 8.1.– NORABIDE ZUZENEKO MUGIMENDUA.
 - 8.2.– NORABIDE-ALDAKETAK DITUZTEN MUGIMENDUAK.
 - 8.3.– ATE BATETIK IGAROTZEKO BERARIAZKO MUGIMENDUAK.
9. *artikula.*– TRANSFERENTZIA BAT EGITEKO BERARIAZKO MUGIMENDUAK.
 - 9.1.– GURPIL-AULKIA ERABILTZEN DUTEN PERTSONEK...
 - 9.2.– GURPIL-AULKIAREN ERABILTZAILE BATEN TRANSFERENTZIA.
10. *artikula.*– PERTZEPZIO-ELEMENTUAK.
 - 10.1.– IKUS-ELEMENTUAK.
 - a) KOKAPENA.
 - b) IKUS-KOMUNIKAZIOKO MODULUAK.
 - 10.2.– BESTELAKO KOMUNIKAZIO-KANALAK.

ANEJO I.
PARÁMETROS ANTROPOMÉTRICOS.

- Artículo 1.- OBJETO.*
- Artículo 2.- DEFINICIONES.*
- Artículo 3.- GRUPOS DE PERSONAS CON DIFICULTADES EN LA ACCESIBILIDAD.*
- 3.1.- AMBULANTES.*
 - 3.2.- PERSONAS USUARIAS DE SILLAS DE RUEDAS.*
 - 3.3.- SENSORIALES.*
 - 3.4.- OTROS GRUPOS DE PERSONAS.*
- Artículo 4.- PARÁMETROS ANTROPOMÉTRICOS DE LA POBLACIÓN.*
- 4.1.- POBLACIÓN ADULTA (DE 18 A 65 AÑOS)*
 - 4.2.- POBLACIÓN CON DISCAPACIDAD PSÍQUICA.*
 - 4.3.- POBLACIÓN DE PERSONAS MAYORES. (MAYOR DE 65 AÑOS.)*
 - 4.4.- POBLACIÓN DE PERSONAS USUARIAS DE SILLAS DE RUEDAS*
- Artículo 5.- SILLAS DE RUEDAS, BASTONES, MULETAS DE CODO Y ANDADORES.*
- 5.1.- DIMENSIONES PRINCIPALES DE UNA SILLA DE RUEDAS DE TIPO ESTANDAR DE ACCIONAMIENTO MANUAL EN MM.*
 - 5.2.- DIMENSIONES PRINCIPALES DE UNA SILLA DE RUEDAS DE TIPO ESTANDAR DE ACCIONAMIENTO MANUAL PLEGADA EN MM.*
 - 5.3.- DIMENSIONES PRINCIPALES DE UNA SILLA DE RUEDAS DE FUNCIONAMIENTO ELECTRICO EN MM.*
 - 5.4.- DIMENSIONES PRINCIPALES DE LOS BASTONES Y DE LAS MULETAS DE CODO EN MM.*
 - 5.5.- DIMENSIONES MEDIAS DE LOS ANDADORES EN MM.*
- Artículo 6.- MEDIDAS FUNCIONALES.*
- 6.1.- DISTANCIA DE ALCANCE FUNCIONAL.*
 - 6.1.1.- PASAMANOS Y ELEMENTOS DE SUJECCIÓN.*
 - 6.1.2.- MÓDULOS DE COMUNICACIÓN VISUAL.*
- Artículo 7.- MOVIMIENTOS DE UNA PERSONA CON BASTONES.*
- 7.1.- MOVIMIENTO EN LÍNEA RECTA.*
 - 7.2.- MOVIMIENTOS ESPECÍFICOS PARA FRANQUEAR UNA PUERTA.*
- Artículo 8.- MOVIMIENTOS EN LA SILLA DE RUEDAS.*
- 8.1.- MOVIMIENTO EN LÍNEA RECTA.*
 - 8.2.- MOVIMIENTOS CON CAMBIOS DE DIRECCIÓN.*
 - 8.3.- MOVIMIENTOS ESPECÍFICOS PARA FRANQUEAR UNA PUERTA.*
- Artículo 9.- MOVIMIENTOS ESPECÍFICOS PARA REALIZAR UNA TRANSFERENCIA.*
- 9.1.- LAS PERSONAS USUARIAS DE SILLAS DE RUEDAS...*
 - 9.2.- TRANSFERENCIA DE UN USUARIO DE SILLA DE RUEDAS.*
- Artículo 10.- ELEMENTOS DE PERCEPCIÓN.*
- 10.1.- ELEMENTOS VISUALES.*
 - a) UBICACIÓN.*
 - b) MÓDULOS DE COMUNICACIÓN VISUAL.*
 - 10.2.- OTROS CANALES DE COMUNICACIÓN.*

I. ERANSKINA.
PARAMETRO ANTROPOMETRIKOAK.

1. *artikulua*. – Xedea.

Eranskin honen xedea irisgarritasunaren arloko oinarrizko kontzeptuak definitzea, irisgarritasun-zailtasunak dituzten pertsona-taldeak identifikatzea eta neurriak, gorputz-dimentsioak, helmen- eta kontrol-egoe-rak, mugimendu eta transferentziarako espazio-behar-rak eta hiri-ingurunea, eraikinak, garraioa eta komunikazio-sistemak diseinatzeako kontuan hartu diren eta hartu behar diren alderdiak ezartzea da, funtsezkoak baitira Irisgarritasuna Sustatzen duen 20/1997 Legea garatzeko.

2. *artikulua*. – Definizioak.

a) Antropometria.

Gorputz-dimentsioak zehazki neurtzea eta gizabanakoen arteko aldakortasuna eta denboran izan duen eboluzioa aztertzea helburu duen diziplina da.

b) Ergonomia.

Pertsona gehienek erosotasun, segurtasun eta eraginkortasun handienarekin erabiltzeko moduko tresnak, makinak eta gailuak sortzeko beharrezkoak diren pertsonari lotutako ezagutza zientifikoen multzoa da.

c) Irisgarritasuna.

Irisgarritasuna ingurune eraikiaren oinarrizko ezaugarri bat da. Irisgarritasunak ingurune horren berezko gizarte- eta ekonomia-jardueretan parte hartzea ahalbidetzen die pertsonari. Parte hartzeko aukera berberak bermatzeko, pertsona guztiek —beren adina eta, hala badagokio, ezgaitasuna edozein izanik ere— ingurune eraikiko edozein aldetan sartzeko eta ahalik eta independentziarik handienarekin erabiltzeko aukera izan behar dute.

d) Arkitektura-oztopoak.

Arkitektura-oztopoak, eraikinen barruan ezgaitasun-maila desberdinentzat agertzen diren eragozpenak dira.

e) Hirigintza-oztopoak.

Hirigintza-oztopoak, hiri-egiturak eta hiri-altzariek, leku historikoek eta jabari publiko eta pribatuko erakuntzarik gabeko espazioek ezgaitasun-maila desberdinen aurrean agertzen dituzten eragozpenak dira.

f) Garraio-oztopoak.

Garraio-oztopoak lurreko, itsasoko, ibaietako edo aireko garraio-unitate partikular edo kolektiboek (distantzia labur, ertain eta luzekoek) ezgaitasun-maila desberdinen aurrean agertzen dituzten eragozpenak dira.

g) Komunikazio-oztopoak.

ANEJO I.
PARÁMETROS ANTROPOMÉTRICOS.

Artículo 1. – Objeto.

Es objeto del presente Anejo definir los conceptos básicos en materia de accesibilidad, identificar los grupos de personas con dificultades en la accesibilidad, así como establecer las medidas, dimensiones corporales, situaciones de alcance y control, necesidades de espacio para los movimientos y transferencias, y aquellos aspectos que se han tenido y deben tenerse en cuenta para el diseño del entorno urbano, la edificación, el transporte y los sistemas de comunicación, que resultan fundamentales para el desarrollo de la Ley 20/1997, sobre Promoción de la Accesibilidad.

Artículo 2. – Definiciones.

a) Antropometría.

Es la disciplina que tiene por objeto la medida precisa de las diferentes dimensiones corporales, el estudio de la variabilidad interindividual así como su evolución a lo largo del tiempo.

b) Ergonomía.

Es el conjunto de conocimientos científicos relativos a la persona y necesarios para concebir útiles, máquinas y dispositivos que pueden ser usados con un máximo de confort, seguridad y de eficacia para la mayoría.

c) Accesibilidad.

La accesibilidad es una característica básica del entorno construido. La accesibilidad permite a las personas participar en las actividades sociales y económicas para las que se ha concebido este entorno. Para garantizar las mismas posibilidades de participación, todas las personas cualesquiera que sea su edad y su posible discapacidad deben de tener la posibilidad de entrar en cualquier parte del entorno construido y utilizarlo con la mayor independencia posible.

d) Barreras arquitectónicas.

Las barreras arquitectónicas son los impedimentos que se presentan en el interior de los edificios frente a las distintas clases y grados de discapacidad.

e) Barreras urbanísticas.

Las barreras urbanísticas son los impedimentos que presentan la estructura y mobiliario urbanos, sitios históricos y espacios no edificados de dominio público y privado frente a las distintas clases y grados de discapacidad.

f) Barreras en el transporte.

Las barreras en el transporte son los impedimentos que presentan las unidades de transporte particulares o colectivas (de corta, media y larga distancia), terrestres, marítimas, fluviales o aéreas frente a las distintas clases y grados de discapacidad.

g) Barreras en la comunicación.

1.- Komunikazio-oztopoak, ezgaitasun-maila desberdineko pertsonak ahozko mezuak eta ahozkoak ez direnak ulertu eta jasotzeko eta eskuragarri dauden baliabide teknikoak erabiltzeko dituzten eragozpenak edo zailtasunak dira.

2.- Komunikazio-zailtasunak alterazioak, sentimen-ezgaitasunak edo beste mota batekoak dituzten pertsona jakin batzuei autonomiaz orientatu, mugitu eta komunikatzea oztopatzen edo eragozten dieten eta informazio-sistemek sortzen dituzten mugak dira.

3.- Alterazioek eta ezgaitasunek pertsonaren funtzio oso edo partzial bat kaltetu dezakete. Alterazio edo ezgaitasun horiek bakarka edota pertsonaren beste funtzio batzuk kaltetzen dituen ezgaitasun larri edo arin batekin batera ager daitezke:

- Ikusmenaren alterazioak: itsutasuna eta ikusmen-zorroztasunean, ikus-eremuan, kromatismoan eta fotofobian eragiten duten guztiak.

- Entzumenaren eta mintzamenaren alterazioak: gortasuna, gormututasuna, hipoakusia, alterazio psikomotorreak, mututasuna, trakeotomia-ebakuntza jasan duten pertsonak eta abar.

- Ikusmenaren eta entzumenaren alterazioak, batera: itsugortasuna.

- Komunikazioa zaildu edo asalda dezaketen bestelako nahasteak: dislexia, afasia, adimen-atzerapena, autismoa, haur-psykosia, garun-paralisia eta abar.

4.- Bertako hizkuntza ezagutzen ez duen atzerritarra izateak ere komunikaziorako mugak dakartza.

h) Urritasuna.

Egitura edo funtzio psikologiko, fisiologiko edo anatomiko baten galera edo anormaltasun oro da urritasuna. (OME, 1981).

i) Ezgaitasuna.

Jarduera bat gizaki batentzat normaltzat hartzen den marjinen barruan edo moduan egiteko gaitasunaren murriztapen edo gabezia oro (urritasun batek eragindakoa) da ezgaitasuna. (OME, 1981).

j) Minusbaliotasuna.

Minusbaliotasuna gizabanako jakin batentzat eragozgarria den egoera bat da, urritasun edo ezgaitasun baten ondorioz sortua eta rol normal bat (adinaren, sexuaren eta gizarte- eta kultura-faktoreen arabera) betetzea eragozten duena. (OME, 1981)

k) Mugikortasun urriko pertsonak.

Mugikortasun urriko pertsona (mup), lekualdatzeko posibilitatea aldi baterako edo etengabe mugatua duena da.

l) Gurpil-aulkia.

1.- Las barreras en la comunicación son los impedimentos o dificultades que se presentan en la comprensión y captación de los mensajes, vocales y no vocales y en el uso de los medios técnicos disponibles para las personas con distintas clases y grados de discapacidad.

2.- Dificultades en la comunicación son aquellas limitaciones que obstaculizan o impiden tanto la orientación, movilidad y comunicación de forma autónoma, de determinadas personas que padecen alteraciones, discapacidades sensoriales o de otro tipo y que son generados por los sistemas de información.

3.- Las alteraciones y discapacidades pueden afectar a una función total o parcial de la persona. Tales alteraciones o discapacidades pueden presentarse de forma aislada o juntamente con otra discapacidad grave o leve que afecte a otras funciones de la persona:

- Alteraciones de la visión: ceguera y todas aquellas que afecten a la agudeza visual, campo visual, el cromatismo y la fotofobia.

- Alteraciones de la audición y el habla: sordera, sordomudez, hipoacusia, trastornos psicomotrices, mutismo, personas que han sufrido una operación de traqueotomía, etc.

- Alteraciones de la visión y la audición conjuntamente: sordoceguera.

- Otros trastornos que pueden dificultar o alterar la comunicación: dislexia, afasia, retraso mental, autismo, síncosis infantil, parálisis cerebral, etc.

4.- La extranjería con desconocimiento de la lengua del país, comporta también limitaciones a la comunicación.

h) Deficiencia.

Una deficiencia es toda pérdida o anomalía de una estructura o función psicológica, fisiológica o anatómica. (O.M.S. 1981).

i) Discapacidad.

Una discapacidad es toda restricción o ausencia (debida a una deficiencia) de la capacidad de realizar una actividad en la forma o dentro del margen que se considera normal para un ser humano. (O.M.S. 1981).

j) Minusvalía.

Una minusvalía es una situación desventajosa para un individuo determinado, consecuencia de una deficiencia o discapacidad, que limitado impide el desempeño de un rol que es normal en su caso (en función de la edad, sexo y factores sociales y culturales). (O.M.S. 1981)

k) Personas con movilidad reducida.

Persona con movilidad reducida (pmr) es aquella que tiene limitada temporal o permanentemente la posibilidad de desplazarse.

l) Silla de ruedas.

Bere armazoiaren eserlekuz hornituta eta hainbat materialerik eginda dagoen ibilgailu mekanikoa, eskuzko trakzioa edo elektrikoa duena eta minusbalotasun bat duten pertsonen lokomozio-sistema ordezkatzeko duena.

3. artikulua. – Irisgarritasun-zailtasunak dituzten pertsona-taldeak.

Mugikortasun- edo komunikazio-arrazoiengatik irisgarritasun-zailtasunak izan ditzaketen pertsona-taldeak ondokoak dira:

3.1.– Ibiltzeko gauza direnak.

1.– Ibiltzeko gauza izan arren, mugimendu jakin batzuk zailtasunez egiten dituzten pertsonak, bai ibiltzeko material ortoprotesikoa behar dutenak (eskorgak, makuluak eta abar), bai behar ez dutenak biltzen dira talde honetan.

2.– Talde honen barruan, ezgaitasun fisikoa duten pertsonak, gutxiegitasun kardiakoa edo arnas gutxiegitasuna duten pertsonak, haurdun dauden emakumeak, karga astunak edo haurrak besotan edo haur-kotxean daramatzaten pertsonak, igeltsatuta edo eriondo dauden pertsonak, hirugarren adineko pertsonak, ondorio txarrak edo malformazioak dakartzaten gaixotasunak dituzten pertsonak, altuera txikiko pertsonak eta abar barne hartzen dira.

(ikus 1. irudia)

3.2.– Gurrpil-aulkia erabiltzen duten pertsonak.

Autonomiaz edo beste pertsona batzuen laguntzarekin lekualdatzeko gurrpil-aulkia behar duten pertsonak dira.

(ikus 2. irudia)

3.3.– Sentsorialak.

Sentimenari, ikusmenari, entzumenari eta/edo komunikazioari lotutako gaitasunak mugatuta dituzten pertsonak barne hartzen dira hemen.

(ikus 3. irudia)

3.4.– Bestelako pertsona-taldeak.

Badira irisgarritasun-zailtasunak dituzten beste pertsona batzuk ere, hala nola manipulatzeko arazoak dituztenak, alergikoak, inkontinentzia, epilepsia, hemofilia edo adimen-ezgaitasuna dutenak eta abar. Pertsona hauek kontuan hartu beharrekoak dira hiri-inguruak, eraikinak, garraioak eta komunikazio-sistemak diseinatzerakoan.

4. artikulua. – Populazioaren parametro antropometrikoak.

4.1.– Populazio heldua (18 urtetik 65era bitartekoa).

Vehículo mecánico dotado de asiento en su armazón, de diferentes materiales, de tracción manual o eléctrica que sustituye al sistema de locomoción de las personas afectadas de una minusvalía.

Artículo 3. – Grupos de personas con dificultades en la accesibilidad.

Existen los siguientes grupos de personas que pueden tener dificultades en la accesibilidad bien sea por causas de movilidad o de comunicación:

3.1.– Ambulantes.

1.– Engloba a las personas que ejecutan determinados movimientos con dificultad, y que pueden caminar siendo usuarias o no de material ortoprotésico para desplazarse, como andadores, muletas etc.

2.– Dentro de este grupo se engloba a personas con discapacidad física, personas con insuficiencia cardíaca, cardíaca o respiratoria, mujeres embarazadas, personas que llevan cargas pesadas, niños en brazos o en cochecito, personas enyesadas, convalecientes, personas de tercera edad, personas afectadas de enfermedades con secuelas o malformaciones, personas de baja talla etc.

(ver figura n.º 1)

3.2.– Personas usuarias de sillas de ruedas.

Son las personas que precisan de una silla de ruedas para desplazarse bien de forma autónoma o con la ayuda de otras personas.

(ver figura n.º 2)

3.3.– Sensoriales.

Engloba a las personas que tienen limitadas sus capacidades sensitivas, visuales, auditivas y/o de comunicación.

(ver figura n.º 3)

3.4.– Otros grupos de personas.

Existen personas que pueden tener igualmente dificultades en la accesibilidad, como las personas con problemas en la manipulación, alérgicas, con incontinencia, epilepsia, hemofilia, discapacidad mental, etc. que deben ser tenidas en cuenta al diseñar los entornos urbanos, las edificaciones, los transportes y los sistemas de comunicación.

Artículo 4. – Parámetros Antropométricos de la población.

4.1.– Población adulta (de 18 a 65 años).

	5 pertzentila	50 pertzentila	95 pertzentila
Pisua (kg.)	51	68	105
Garaiera (bertxetik lurrera) (mm)	1510	1700	1880
Altuera (ukondotik lurrera) (mm)	950	1080	1190

<i>Percentil 5</i>	<i>Percentil 50</i>	<i>Percentil 95</i>	
<i>Peso kg.</i>	<i>51</i>	<i>68</i>	<i>105</i>
<i>Talla (vertex-suelo) mm</i>	<i>1510</i>	<i>1700</i>	<i>1880</i>
<i>Altura codo-suelo mm</i>	<i>950</i>	<i>1080</i>	<i>1190</i>

4.2.- Ezgaitasun psikikoa duen populazioa.

4.2.- Población con discapacidad psíquica.

5 pertzentila	50 pertzentila	95 pertzentila	
Pisua (kg.)	52,7	65	80
Garaiera (bertxetik lurrera) (mm)	1470	1620	1750
Altuera (ukondotik lurrera) (mm)	885	1030	1150

<i>Percentil 5</i>	<i>Percentil 50</i>	<i>Percentil 95</i>	
<i>Peso kg.</i>	<i>52,7</i>	<i>65</i>	<i>80</i>
<i>Talla (vertex-suelo) mm</i>	<i>1470</i>	<i>1620</i>	<i>1750</i>
<i>Altura codo-suelo mm</i>	<i>885</i>	<i>1030</i>	<i>1150</i>

4.3.- Pertsona adindunen (65 urtetik gorako) populazioa.

4.3.- Población de personas mayores. (mayor de 65 años).

5 pertzentila	50 pertzentila	95 pertzentila	
Pisua (kg.)	46	67	87
Garaiera (bertxetik lurrera) (mm)	1470	1580	1670
Altuera (ukondotik lurrera) (mm)	926	995	1065

<i>Percentil 5</i>	<i>Percentil 50</i>	<i>Percentil 95</i>	
<i>Peso kg.</i>	<i>46</i>	<i>67</i>	<i>87</i>
<i>Talla (vertex-suelo) mm</i>	<i>1470</i>	<i>1580</i>	<i>1670</i>
<i>Altura codo-suelo mm</i>	<i>926</i>	<i>995</i>	<i>1065</i>

4.4.– Gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonen populazioa.

4.4.– Población de personas usuarias de sillas de ruedas.

	5 pertzentila	50 pertzentila	95 pertzentila
Pisua (kg.)	49,7	79	119,5
Altuera eserita (burutik lurrera) (mm)	1170	1310	1430
Altuera (begietatik lurrera) (mm)	1050	1190	1320
Altuera (sorbaldetatik lurrera) (mm)	900	1030	1120
Altuera (ukondotik lurrera) (mm)	600	690	770
Altuera (belaunetik lurrera) (mm)	568	630	722
Beso-luzera (behatzaren gehieneko helmena) (mm)	1550	1640	1840
Beso-luzera (ukabilaren gehieneko helmena) (mm)	1330	1510	1680
Sorbalda-zabalera (mm)	360	455	522
Gutzizko zabalera (aulkia eta kanpoan geratzen diren ukondo eta eskuen zatiak)	700	750	800
Altuera (orpotik lurrera) (mm)	42	100	211
Gutzizko luzera (aulkia eta kanpo geratzen diren oin zatiak)	1070	1170	1330

<i>Percentil 5</i>	<i>Percentil 50</i>	<i>Percentil 95</i>	
<i>Peso kg.</i>	<i>49,7</i>	<i>79</i>	<i>119,5</i>
<i>Altura sentado cabeza-suelo mm</i>	<i>1170</i>	<i>1310</i>	<i>1430</i>
<i>Altura ojos-suelo mm</i>	<i>1050</i>	<i>1190</i>	<i>1320</i>
<i>Altura hombros-suelo mm</i>	<i>900</i>	<i>1030</i>	<i>1120</i>
<i>Altura codo-suelo mm</i>	<i>600</i>	<i>690</i>	<i>770</i>
<i>Altura rodilla-suelo mm</i>	<i>568</i>	<i>630</i>	<i>722</i>
<i>Envergadura máximo alcance dedo mm</i>	<i>1550</i>	<i>1640</i>	<i>1840</i>
<i>Envergadura máximo alcance puño mm</i>	<i>1330</i>	<i>1510</i>	<i>1680</i>
<i>Anchura de hombros mm.</i>	<i>360</i>	<i>455</i>	<i>522</i>
<i>Anchura total (silla y lo que sobresalen los codos y las manos)</i>	<i>700</i>	<i>750</i>	<i>800</i>
<i>Altura talón-suelo mm</i>	<i>42</i>	<i>100</i>	<i>211</i>
<i>Longitud total (silla y lo que sobresalen los pies)</i>	<i>1070</i>	<i>1170</i>	<i>1330</i>

5. artikulua.– Gurpil-aulkiak, makilak, ukondo-makuluak eta eskorgak.

Gurpil-aulkien barietatea oso handia bada ere, aulki estandartzat ondoko taulan ezarritako dimentsioak gainditzen ez dituen lagundutako esku biko aulkia hartzen da.

5.1.– Eskuzko eragingailua duen gurpil-aulki estandar baten dimentsio nagusiak milimetrotan.

Artículo 5.– Silla de ruedas, bastones, muletas de codo y andadores.

Existe gran variedad de sillas de ruedas considerándose silla estándar la silla bimanual asistida cuyas dimensiones no sobrepasen las establecidas en la tabla siguiente.

5.1.– Dimensiones principales de una silla de ruedas de tipo estándar de accionamiento manual en mm.

Gehieneko luzera (atzeko gurpiletik oin-euskarrietara)	1200
Gehieneko guztizko zabalera (beheko uztaia)	700
Eserlekuaren altuera	500
Guztizko altuera	1090
Gurpilen diametroa	600
Beso-euskarriaren altuera	730etik 760ra bitartean
Eserlekuaren hondoa	430
Eserlekuaren zabalera erabilgarria	450etik 500era bitartean
Oin-euskarriaren altuera	140
Pisua (Kg.)	11tik 23ra bitartean

<i>Longitud máxima (rueda trasera-soporte para los pies)</i>	<i>1200</i>
<i>Anchura total máxima (aro inferior)</i>	<i>700</i>
<i>Altura del asiento</i>	<i>500</i>
<i>Altura total</i>	<i>1090</i>
<i>Diámetro de las ruedas</i>	<i>600</i>
<i>Altura del reposabrazos</i>	<i>de 730 a 760</i>
<i>Fondo del asiento</i>	<i>430</i>
<i>Anchura útil del asiento</i>	<i>de 450 a 500</i>
<i>Altura del reposapiés</i>	<i>140</i>
<i>Peso (en Kg)</i>	<i>11 a 23</i>

(ikus 4. irudia)

Aulki askok, beren ingerada murrizteko, elementu batzuk (oin-euskarria eta beso-euskarria) desmuntatzeko aukera ematen dute edo, bestela, eserlekuaren inklinazioa erregulatzeko.

5.2.– Eskuzko eragingailua duen gurpil-aulki estandar tolestu baten dimentsio nagusiak milimetrotan.

(ver figura n.º 4)

Gran parte de las sillas poseen la capacidad de desmontar ciertos elementos para disminuir su contorno (reposapiés y apoyabrazos) o son regulables en inclinación del asiento.

5.2.– Dimensiones principales de una silla de ruedas de tipo estándar de accionamiento manual plegada en mm.

Guztizko luzera	1100
Guztizko zabalera	280

<i>Longitud total</i>	<i>1100</i>
<i>Anchura total</i>	<i>280</i>

5.3.– Funtzionamendu elektrikoko gurpil-aulki baten dimentsio nagusiak milimetrotan.

5.3.– Dimensiones principales de una silla de ruedas de funcionamiento eléctrico en mm.

Gehieneko luzera (atzeko gurpiletik oin-euskarrietara)	1.200etik 1.240ra bitartean
Gehieneko guztizko zabalera (beheko uztaia)	700etik 740ra bitartean
Eserlekuaren altuera	530
Guztizko altuera	1277
Eserlekuaren hondoa	430etik 460ra bitartean
Eserlekuaren zabalera erabilgarria	450etik 500era bitartean
Pisua (Kg.)	70etik 230era bitartean

(ikus 5. irudia)

(ver figura n.º 5)

<i>Longitud máxima (rueda trasera-soporte para los pies)</i>	<i>1200 a 1240</i>
<i>Anchura total máxima (aro inferior)</i>	<i>700 a 740</i>
<i>Altura del asiento</i>	<i>530</i>
<i>Altura total</i>	<i>1277</i>
<i>Fondo del asiento</i>	<i>430 a 460</i>
<i>Anchura útil del asiento</i>	<i>de 450 a 500</i>
<i>Peso (en Kg)</i>	<i>70 a 230</i>

5.4.- Makilen eta ukondo-makuluen dimentsio nagusiak milimetrotan.

5.4.- Dimensiones principales de los bastones y de las muletas de codo en mm.

Kanaren altuera	650-850
Makuluaren besoaren luzera	230
Heldulekuaren luzera	100

<i>Altura de la caña</i>	<i>650-850</i>
<i>Longitud del brazo de la muleta</i>	<i>230</i>
<i>Longitud de mango</i>	<i>100</i>

(ikus 6. irudia)

(ver figura n.º 6)

5.5.- Eskorgen batez besteko dimentsioak milimetrotan.

5.5.- Dimensiones medias de los andadores en mm.

Luzera	610
Zabalera	590
Altuera	920

<i>Longitud</i>	<i>610</i>
<i>Anchura</i>	<i>590</i>
<i>Altura</i>	<i>920</i>

(ikus 7. irudia)

6. artikulua.– Neurri funtzionalak.

6.1.– Helmen funtzionaleko distantzia.

1.– Pertsonen helmen funtzionaleko distantzien barruan erosotasun-eremuak eta gehieneko helmeneko eremuak ezartzen dira.

2.– Hauek dira erosotasun-eremuak: gorputz-segmentuak mugitzeko dituen mugen barruan erosotasunari eta prestazioei dagokienez emaitzarik onenak lortzen dituztenak dira. Hauek dira kontrol-neurriak edo eragite-neurriak: helmen-zonen barruan, gorputz-segmentuaren mugimenduak erosotasunez eta maniobratzeko adina denboratan jarrera batzuk mantentzeko eran egiten direnekoak.

3.– Gehieneko helmeneko eremuak, gorputz-segmentuek -artikulazioak zein gihar eta tendoiak ahaleginik handiengan jarrita- hartzen dituzten zonak dira. Hauek erosotasun txikiagoa eskaintzen dute eta beharretako jarrerak oso denbora laburrean hartzea besterik ez dute ahalbidetzen. Gainera, pertsona batzuk, beren minusbaliotasuna dela eta, ez dira gehieneko horietara iristen.

4.– Pertzepzio-elementuetarako (ikusmen, ukimen eta entzumen bidezko informazioa) irizpide berberak ezartzen dira.

(ver figura n.º 7)

Artículo 6.– Medidas Funcionales.

6.1.– Distancia de alcance funcional.

1.– Dentro de las distancias de alcance funcional de las personas se establecen las áreas de confort y las áreas de alcance máximo.

2.– Las áreas de confort son aquellas que dentro de los límites del movimiento del segmento corporal consiguen los mejores resultados en cuanto a comodidad y prestaciones. Las medidas de control o accionamiento son aquellas comprendidas dentro de las zonas de alcance donde los movimientos del segmento corporal se realizan con comodidad y permitiendo posturas con mantenimiento en el tiempo suficiente para maniobrar.

3.– Las áreas de alcance máximo son las zonas barridas por los segmentos corporales implicados al máximo de sus límites, tanto articulares como músculo-tendinosos. Estas proporcionan menor confort permitiendo posturas forzadas con mantenimiento en el tiempo muy limitado, además existen algunas personas que por su minusvalía no alcanzan estos máximos.

4.– Se establecen los mismos criterios para los elementos de percepción (información visual, táctil y auditiva)

	GURPIL-AULKI BATEAN ESERITA DAGOEN PERTSONA	ZUTIK DAGOEN PERTSONA
Esku-helmena plano bertikalean (alborakoa eta aurrarakoa)	0,40 m-tik 1,40ra bitartean	0 m-tik 1,80ra bitartean
Aurrarako esku-helmena plano horizontalean (0,70 m-tik 0,85ra bitartean kokatuta)	0,8 m-ra bitartean (bizkarraldetik)	0,80 m-ra bitartean (sorbaldatik)
Alborako esku-helmena plano horizontalean	0,37 m-tik 0,59ra bitartean (aulkiaren ertzetik)	0,68 m-tik 0,86ra bitartean (plano ertainetik)
Atzerako helmena	0,69 m.	0,69 m.
Esku-kontrol bertikala	0,80 m-tik 1,00era bitartean	1,00 m-tik 1,50era bitartean
Esku-kontrol horizontala	0,60 m.	0,60 m.
Ikus-helmena	0,60 m-tik 1,45era bitartean	1,05 m-tik 1,85era bitartean

	<i>PERSONA SENTADA EN SILLA DE RUEDAS</i>	<i>PERSONA DE PIE</i>
<i>Alcance manual en el plano vertical (lateral y frontal)</i>	<i>De 0,40 a 1,40 m.</i>	<i>De 0 a 1,80 m.</i>
<i>Alcance manual en el plano horizontal frontal (situado entre 0,70 y 0,85 m.).</i>	<i>Hasta 0,8 m. (desde el respaldo)</i>	<i>Hasta 0,80 m. (desde el hombro)</i>
<i>Alcance manual lateral en el plano horizontal.</i>	<i>De 0,37 a 0,59 m. (desde el borde de su silla)</i>	<i>De 0,68 a 0,86 m. (desde el plano medio)</i>
<i>Alcance posterior</i>	<i>0,69 m.</i>	<i>0,69 m.</i>
<i>Control manual vertical</i>	<i>De 0,80 a 1,00 m.</i>	<i>De 1,00 a 1,50</i>
<i>Control manual horizontal</i>	<i>0,60 m.</i>	<i>0,60 m.</i>
<i>Alcance visual</i>	<i>De 0,60 a 1,45 m</i>	<i>De 1,05 a 1,85 m.</i>

6.1.1.– Eskubandak eta eusteko elementuak.

Esku bakar batez irmoki heltzeko moduko dimentsioak eduki beharko dituzte, 0,90 m inguruko altuera batean ipiniko dira eta eskuarentzako eta besoarentzako oztoporik gabe antolatuko dira.

6.1.2.– Ikus-komunikazioko moduluak.

1.– Beste ezaugarri batzuen artean, ikus-informazio moduluak behar adinako kontrastea eskaini beharko dute informazioaren eta hondoaren artean. Gomen dio hau testuari nahiz legendei, piktogramei eta etengailuetan eta ateen eskulekuetan aplikatutako grafikari dagokienez aplikatu daiteke.

2.– Sinboloak erraz ulertzeko modukoak izango dira kolore-kodeen erabilerari nahiz beren estereotipiari dagokienez.

3.– Kasu guztietan, sinboloen tamaina hainbat distantziatetik irakurri ahal izateko bezain handia izango da.

(ikus 8. irudia)

7. artikulua.– Makilak erabiltzen dituen pertsona baten mugimenduak.

7.1.– Norabide zuzeneko mugimenduak.

Bi makila erabiltzen dituen pertsona batek ibiltzeko behar duen gutxieneko igarotze-zabalera 1,00 m-koa da, oztoporik gabe.

7.2.– Ate batetik igarotzeko berariazko mugimenduak.

1.– Gurpil-aulkia erabiltzen duen pertsona bat atetik igaro ahal izateko ezarritako espazioak makilak erabiltzen dituen pertsona batentzat baliagarriak izan

6.1.1.– Pasamanos y elementos de sujeción.

Deberán poseer unas dimensiones determinadas que permitan ser agarrados firmemente por una sola mano, estarán colocados a una altura aproximada de 0,90 m. y se dispondrán sin obstáculos ni para la mano que se desliza ni para el brazo.

6.1.2.– Módulos de comunicación visual.

1.– Al margen de otras características, los módulos de información visual deberán de proporcionar un contraste suficiente entre la información y el fondo. Esta recomendación es aplicable tanto en lo que se refiere a texto como a las leyendas, pictograma y gráfica aplicada a interruptores y tiradores de puertas.

2.– En el caso de los símbolos serán de fácil comprensión tanto en la utilización de los códigos de colores como en su estereotipia.

3.– En todos los casos el tamaño de los símbolos será lo suficientemente grande para poder ser leído a diferentes distancias.

(ver figura n.º 8)

Artículo 7.– Movimientos de una persona con bastones.

7.1.– Movimiento en línea recta.

La anchura de paso mínimo que una persona usuaria de dos bastones necesita para circular es de 1,00 m. libre de obstáculos.

7.2.– Movimientos específicos para franquear una puerta.

1.– Aunque los espacios que se marcan para franquear una puerta para una persona usuaria de silla de ruedas pueden resultar útiles para una persona con bas-

badaitzke ere, ondoko alderdiak ere kontuan hartu behar dira:

2.- Atearen pisuak, esku batek bi makilak heltzen dituen bitartean bestearekin zabaldu ahal izateko bezain arina izan behar du.

3.- Halaber, atearen malgukiak atea ixteko egingo duen pisu eta indarrak ez dio makilak erabiltzen dituen pertsonari bultzatzea egingo, ez eta desorekatuko ere atetik igarotzean.

8. artikulua.– Mugimenduak gurpil-aulki batean.

8.1.– Norabide zuzeneko mugimendua.

Gutxieneko igarotze-zabalera erabilgarriak ondoak izango dira:

a) Oztopo bakan bat gainditzeko: 0,90 m.

b) Zirkulatzeko:

– Gurpil-aulkia erabiltzen duten bi pertsona gurutzatzea edo aldi berean zirkulatzea aurreikusten ez denean: 0,90 m, oztoporik gabe.

– Gurpil-aulkia erabiltzen duten bi pertsona gurutzatzea edo aldi berean zirkulatzea aurreikusten denean, oztoporik gabeko gutxieneko zabalera 1,80koa izango da baina 2,00 m-koa gomendatzen da.

(ikus 9. irudia)

8.2.– Norabide-aldaketak dituzten mugimenduak.

Gurpil-aulkia erabiltzen duen pertsona batek norabidea aldatu ahal izateko bira bat egin behar du gurpil-aulkiarekin. Horrela, aulki estandar baten gurpil bat blokeatuta bira egiteko beharrezkoa den espazioa ondokoa izango da:

a) 90.º-ko bira egiteko espazioa: 1,40 m x 1,40 m.

b) 180.º-ko bira egiteko espazioa: 1,40 m (aulkiaren ardatzarekiko paralelo) x 1,70 m. (elkarzut).

c) 90.º, 180.º eta 360.º-ko birak egiteko espazioa: oztoporik gabeko gutxieneko zirkuluaren diametroa 1,50 m-koa izango da. Dena den, aulki elektriko edo beste mota bateko batekin 180.º eta 360.º-ko bira errazak egiteko 1,80 m-ko diametroa gomendatzen da, 1,50 m-ko diametroarekin aulki elektriko batzuetan maniobrak egin behar baitira.

(ikus 12. irudia)

8.3.– Ate batetik igarotzeko berariazko mugimenduak.

1.– Ate bat zabaldu eta bertatik igarotzeko, bira txiki bat egin ahal izateko moduko oztoporik gabeko espazio bat behar da eta espazio horren dimentsioak hurbilketaren eta irekiera-noranzkoaren arabera izango dira. Halaber, atearen beste aldean oztoporik gabeko espazio bat beharko da.

2.– Era berean, atea zabaltzeko eta ixteko eskuzko mekanismoen (kisketen eta eskulekuen) altuera eta kokapena kontuan hartu beharko dira. Hauek kontrol-zonaren barruan antolatuta egon beharko dute, beren ma-

tones, deben contemplarse también los siguientes aspectos:

2.– El peso de la puerta debe ser lo suficientemente ligero como para poder abrirla con una sola mano mientras la otra mano sujeta los dos bastones.

3.– Así mismo, el peso y la fuerza que el muelle de la puerta realice para su cierre no deberá empujar ni desequilibrar a la persona usuaria de bastones en su franqueo de la puerta.

Artículo 8.– Movimientos en la silla de ruedas.

8.1.– Movimiento en línea recta.

Las anchuras de paso útiles mínimas serán:

a) Para superar un obstáculo aislado: 0, 90 m.

b) Para circular:

– Cuando no es predecible que dos personas usuarias de sillas de ruedas se crucen o circulen a la vez: 0,90 m. libre de obstáculos.

– Cuando es predecible que dos personas usuarias de sillas de ruedas se crucen o circulen a la vez: la anchura mínima libre de obstáculos será de 1,80 m. mínimo, recomendándose 2,00 m.

(ver figura n.º 9)

8.2.– Movimientos con cambios de dirección.

Para que un usuario de silla de ruedas cambie de dirección es necesario efectuar un giro con la silla de ruedas. El espacio necesario para el giro sobre una rueda bloqueada de una silla estándar será el siguiente:

a) Espacio para giro de 90.º: 1,40 m por 1,40 m.

b) Espacio para giro de 180.º: 1,40 m paralelo al eje de la silla por 1,70 m. en sentido perpendicular.

c) Espacio para giros de 90.º, 180.º, 360.º: Círculo mínimo libre de obstáculos de 1,50 m de diámetro, recomendándose 1,80 m. de diámetro para giros fáciles de 180.º y 360.º con una silla eléctrica o de otro tipo, ya que con 1,50 m. de diámetro de giro algunas sillas eléctricas necesitan maniobrar.

(ver figura n.º 12)

8.3.– Movimientos específicos para franquear una puerta.

1.– Para abrir y franquear una puerta es necesario un espacio libre de obstáculos para hacer un pequeño giro y sus dimensiones dependerán de cómo sea la aproximación y del sentido de apertura. Así mismo se necesitará un espacio libre de obstáculos al otro lado de la puerta.

2.– Debe tenerse en cuenta igualmente la altura y situación de los mecanismos manuales de accionamiento de apertura y cierre (picaportes y tiradores) que deberán estar dispuestos dentro de la zona de control sien-

niobragarritasuna eragozteko oztoporik gabe iristeko moduan hain zuzen ere.

(ikus 10. eta 11. irudiak)

9. artikulua.– Transferentzia bat egiteko berariazko mugimenduak.

9.1.– Gurpil-aulkia erabiltzen duten pertsonen espazio libre handiagoak behar dituzte aulkiarekin maniobrak egiteko eta aulkitik transferentziak egiteko.

9.2.– Gurpil-aulkiaren erabiltzaile baten transferentzia.

1.– Transferentziarik ohikoenak aulkitik bainugelako eta logelako hainbat elementuetara egiten dira. Transferentziak egiteko hainbat teknika daude erabiltzailearen gaitasunaren arabera. Aurrerako transferentziek, erabili beharreko elementuarekiko 1,20 m-tik 2,00ra bitarteko espazio librea eskatzen dute eta alboetarako transferentziek aldiz, 0,80 m-koa besterik ez.

2.– Oro har, oztoporik gabeko birak egiteko gutxieneko espazioa 1,50 m-tan zenbatesten da (1,80 m-koa gomendatzen da). Espazio horrek aurrerako transferentzia asko ahalbidetzen ditu.

3.– Komun-ontzi, ohe, eserleku, gorputz-euskarri, bainuontziaren ertz libre eta abarren altuera gomendatua gurpil-aulkiaren eserlekuaren berbera izango da, hau da, 0,45 m-koa.

10. artikulua.– Pertzepzio-elementuak.

Pertsona guztiek instalazio eraiki bat erabili ahal izateko beharrezkoa den informazioa jaso behar dute. Beraz, ikusmen, ukimen eta entzumen bidezko informazioa aurkezteko modua kontuan hartu behar da.

10.1.– Ikus-elementuak.

a) Kokapena.

1.– Zutikako pertsonentzat informazio-elementuak 1,05 m-tik 1,95era bitarteko ikus-lerro batean kokatuko dira, irakurtzeko batez bestekoa 1,5 m-koa izanik.

2.– Eserita dauden pertsonentzat edo gurpil-aulkiaren erabiltzaileentzat bigarren ikus-lerro bat ezartzen da. Lerro hau 0,60 m-tik (lurretik) 1,45era bitartekoa izango da.

b) Ikus-komunikazioko moduluak.

1.– Beste ezaugarri batzuen artean, ikus-informazio moduluak behar adinako kontrastea eskaini behar dute informazioaren eta hondoaren artean. Gomen dio hau testuari nahiz legendei, piktogramei eta etengailuetan eta ateen eskulekuetan aplikatutako grafikari dagokienez aplikatu daiteke.

2.– Sinboloak erraz ulertzeko modukoak izango dira kodeen erabilerari nahiz beren estereotipiari dagokienez.

do posible el acceso a los mismos sin obstáculos que impidan su maniobrabilidad.

(ver figuras n.º 10 y n.º 11)

Artículo 9.– Movimientos específicos para realizar una transferencia.

9.1.– Las personas usuarias de sillas de ruedas son las que precisan de mayores espacios libres que les permitan maniobrar con la silla y realizar las transferencias desde la misma.

9.2.– Transferencia de un usuario de silla de ruedas:

1.– Las transferencias más habituales se efectúan desde la silla a los diferentes elementos del cuarto de baño y dormitorio. Existen diferentes técnicas de transferencias en relación a la capacidad del usuario. Las transferencias frontales exigen entre 1,20 a 2,00 m. de espacio libre frente al elemento a usar, mientras que las transferencias laterales solamente precisan de 0,80 m.

2.– En general se estima que el respeto de espacios de giros libres de obstáculos es de 1,50 m. mínimo, recomendándose el de 1,80 m. , que permiten gran parte de las transferencias frontales.

3.– Las alturas recomendadas de los inodoros, camas, asientos y soportes corporales, borde libre de bañera, etc. serán las mismas del asiento de la silla de ruedas, es decir 0,45 m.

Artículo 10.– Elementos de percepción.

Todas las personas deben recibir la información necesaria para poder usar una instalación construida. Hay que prestar atención, por tanto, al modo de presentar la información visual, táctil y auditiva.

10.1.– Elementos visuales.

a) Ubicación.

1.– Para personas de pie los elementos de información se ubicarán en una línea visual comprendida entre 1,05 m. y 1,95 m. estableciéndose una media de lectura de 1,50 m.

2.– Se establece una segunda línea visual para personas en posición sedente o usuarios en sillas de ruedas. Esta línea idónea va desde de 0,60 m. del suelo a 1,45 m.

b) Módulos de comunicación visual.

1.– Entre otras características los módulos de información visual deberán proporcionar un contraste suficiente entre la información y el fondo. Esta recomendación es aplicable tanto en lo referente al texto como a las leyendas, pictograma y gráfica aplicada a interruptores y tiradores de puertas.

2.– En este caso los símbolos serán de fácil comprensión tanto en la utilización de los códigos como en su estereotipia.

3.- Kasu guztietan, sinboloen tamaina hainbat distantziatetik irakurri ahal izateko bezain handia izango da.

10.2.- Bestelako komunikazio-kanalak.

1.- Ikus-informazioa erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsona itsuek edo ikusmen-zailtasunak dituztenek seinaleak jasotzeko sistema alternatiboak eduki beharko dituzte. Sistema alternatibo horiek, hala nola erliebe-seinaleek edo soinu-zuko baieztapena duten etengailuek, entzumen-kanalak, ukimen-kanalak eta zინeste-sikoak darabiltzate.

2.- Entzumen-zailtasunak dituzten pertsonen kasuan, seinaleak anplifikatu edo ikusmenaren bidez ulertzeko moduan egin beharko dira.


3.- En todos los casos el tamaño de los símbolos será lo suficientemente grande para poder ser leído a diferentes distancias.

10.2.- Otros canales de comunicación.


1.- Las personas ciegas y las personas con dificultades de visión que encuentren dificultades de utilización de la información visual deberán de disponer de sistemas alternativos de detección de señales. Estos sistemas alternativos tales como los interruptores con señales de relieve o confirmación sonora utilizan los canales auditivos, táctiles y cinestésicos.

2.- En el caso de las personas con dificultades de audición se deberán de amplificar las señales o hacerlas comprensibles visualmente.


IRUDIAK / FIGURAS




1. Irudia / Figura 1




2. Irudia / Figura 2




3. Irudia / Figura 3




4. Irudia / *Figura 4*




5. Irudia / *Figura 5*




6. Irudia / *Figura 6*




7. Irudia / *Figura 7*




8. Irudia / *Figura 8*




9. Irudia / *Figura 9*



10. Irudia / *Figura 10*



11. Irudia / *Figura 11*



12. Irudia / *Figura 12*

II. ERANSKINA.
HIRI-INGURUNEKO IRISGARRITASUN-BALDINTZA TEKNIKOAK

1. *artikula*.- XEDEA.

2. *artikula*.- APLIKAZIO-ESPARRUA.

3. *artikula*.- URBANIZAZIO-ELEMENTUAK.

3.1.- DEFINIZIOA.

3.2.- OINEZKOENTZAKO IBILBIDEAK.

3.3.- ZOLADURAK.

3.4.- IBILGAILUENTZAKO IBIAK.

3.5.- OINEZKOENTZAKO PASAGUNEAK.

3.6.- PARKEAK, LORATEGIAK, PLAZAK ETA ESPAZIO LIBRE PUBLIKOAK.

3.7.- ESKAILERAK.

3.8.- ARRAPALAK.

3.9.- ESKAILERA MEKANIKOAK, TAPIZ PIRIKARIAK ETA IGOGAILUAK.

3.10.- ESKUBANDAK.

3.11.- APARKALEKUAK.

3.12.- KOMUN PUBLIKOAK.

3.12.1.- KOMUN-ONTZI EGOKITUAREN KABINAREN EZAUGARRIAK.

3.12.2.- KOMUN-ONTZIAREN EZAUGARRIAK ETA INSTALAZIOA.

4. *artikula*.- HIRI-ALTZARIAK.

4.1.- DEFINIZIOA.

4.2.- HIRI-ALTZARIAK INSTALATZEKO ARAUAK.

4.2.1.- ARAU OROKORRAK.

4.2.2.- ARAU PARTIKULARRAK.

4.2.2.1.- Semaforoak.

4.2.2.2.- Telefonoak.

4.2.2.3.- Mugikortasun urria duten pertsonen erabiltzeko moduko telefonoa.

4.2.2.4.- Makina saltzaileak.

4.2.2.5.- Edukinontzi, paperontzi, gutunontzi eta antzeko elementuen ahoak.

4.2.2.6.- Iturriak eta edateko tokiak.

4.2.2.7.- Bankuak.

4.2.2.8.- Mutiloiak.

4.2.2.9.- Informazio-puntuak.

4.2.2.10.- Autobus-geltokiak, markesinak.

4.2.2.11.- Mostradoreak eta leihatilak.

4.3.- BEHIN-BEHINEKO ELEMENTUEN BABESA ETA SEINALEZTAPENA.

ANEJO II.

CONDICIONES TÉCNICAS SOBRE ACCESIBILIDAD EN EL ENTORNO URBANO.

Artículo 1.- OBJETO.

Artículo 2.- ÁMBITO DE APLICACIÓN.

Artículo 3.- ELEMENTOS DE URBANIZACIÓN.

3.1.- DEFINICIÓN

3.2.- TITINERARIOS PEATONALES.

3.3.- PAVIMENTOS.

3.4.- VADOS DE VEHÍCULOS.

3.5.- PASOS DE PEATONES.

3.6.- PARQUES, JARDINES, PLAZAS Y ESPACIOS LIBRES PÚBLICOS.

3.7.- ESCALERAS.

3.8.- RAMPAS.

3.9.- ESCALERAS MECÁNICAS, TAPICES RODANTES Y ASCENSORES.

3.10.- PASAMANOS.

3.11.- APARCAMIENTOS.

3.12.- ASEOS PÚBLICOS.

3.12.1.- CARACTERÍSTICAS DE LA CABINA DE INODORO ADAPTADO.

3.12.2.- CARACTERÍSTICAS DEL INODORO Y SU INSTALACIÓN.

Artículo 4.- MOBILIARIO URBANO.

4.1.- DEFINICIÓN.

4.2.- NORMAS DE INSTALACIÓN DEL MOBILIARIO URBANO.

4.2.1.- NORMAS GENERALES.

4.2.2.- NORMAS PARTICULARES.

4.2.2.1.- Semáforos.

4.2.2.2.- Teléfonos.

4.2.2.3.- Teléfono accesible para el uso de personas con movilidad reducida.

4.2.2.4.- Maquinas expendedoras.

4.2.2.5.- Bocas de contenedores, papeleras, buzones y elementos análogos.

4.2.2.6.- Fuentes y bebederos.

4.2.2.7.- Bancos.

4.2.2.8.- Bolardos.

4.2.2.9.- Puntos de información.

4.2.2.10.- Paradas de autobuses, marquesinas.

4.2.2.11.- Mostradores y ventanillas.

4.3.- PROTECCIÓN Y SEÑALIZACIÓN DE ELEMENTOS PROVISIONALES.

II. ERANSKINA.

HIRI-INGURUNEKO IRISGARITASUN-BALDINTZA
TEKNIKOAK**1. artikulua.** – Xedea.

1.1.– Eranskin honen xedea, hiri-ingurunearen eta bereziki espazio publiko eta ekipamendu komunitarioen irisgarritasun-baldintza teknikoak arautzea da, era honetan pertsonen erabilera eta gozamina berma dadin, Irisgarritasuna Sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 1. artikuluan adierazi bezala hain zuzen ere.

1.2.– Irisgarritasuna Sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 3.1.a) artikuluan aipatutako espazio publikoek, urbanizazio-elementuek eta hiri-altzariek, pertsona guztiek autonomiaz erabili ahal izateko aukera eman beharko dute, Eranskin honetan xedatutakoari jarraiki.

2. artikulua. – Aplikazio-esparrua.

Eranskin honetan bildutako arauak nahitaez bete beharrekoak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, planoak diseinatzean, plangintza-tresnen zehazpenak idaztean, urbanizazio-proiektuak idatzi eta burutzean eta hiri-altzariak diseinatu, beren ezaugarriak zehaztu eta ipintzean.

3. artikulua. – Urbanizazio-elementuak.

3.1.– Definizioa.

Urbanizazio-elementutzat urbanizazio-obretako edozein osagai hartzen da, hots, zolaketa, uraren hornikuntza eta banaketa, saneamendua eta estolderia, energia elektrikoaren banaketa, gasa, telefonia eta telematika, argiteria publikoa, lorategiak eta hirigintza-plangintza garatzeko tresnen aginduak gauzatzen dituzten beste guztiak.

3.2.– Oinezkoentzako ibilbideak.

1.– Oinezkoen pasaerara edo oinezkoen eta ibilgailuen pasaera mistora destinatutako erabilera komunitarioko ibilbide publiko edo pribatuen trazadura eta diseinua irisgarritasuna bermatzeko moduan egingo da.

2.– Diseinuaren eta trazaduraren zehazpen teknikoak ondokoak izango dira:

– Oztoporik gabeko gutxieneko igarotze-zabalera 2,00 m-koa izango da, hektarea bakoitzeko 12 etxebizitzako dentsitatea edo txikiagoa duten etxebizitzaren urbanizazioetan izan ezik. Hauetan zabalera hori 1,50 m-ra murriztu ahal izango da, betiere oztoporik gabeko 1,80 x 1,80 m-ko karratu bat egitea ahalbidetuko duten elkartzeko eta biratzeko azalera instalatzen badira (beren arteko gehieneko distantzia 20 m-koa izanik) eta elkarren begi-bistan badaude.

– Ibilbidearen edozein puntutan, igarotze-altuera libre 2,20 m-koa izango da gutxienez.

ANEJO II.

CONDICIONES TÉCNICAS SOBRE ACCESIBILIDAD
EN EL ENTORNO URBANO.**Artículo 1.** – Objeto.

1.1.– El presente Anejo tiene por objeto regular las condiciones técnicas de accesibilidad del entorno urbano, y en particular de los espacios públicos y de los equipamientos comunitarios, con la finalidad de garantizar su uso y disfrute por las personas en los términos indicados en el artículo 1 de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, sobre Promoción de la Accesibilidad.

1.2.– Los espacios públicos, los elementos de la urbanización y el mobiliario urbano a los que se refiere el artículo 3.1 a) de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad, deberán permitir su uso de forma autónoma por todas las personas, conforme a lo dispuesto en el presente Anejo.

Artículo 2. – Ámbito de aplicación.

Las normas contenidas en el presente Anejo serán de obligado cumplimiento en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el diseño de planos, en la redacción de las determinaciones de los instrumentos del planeamiento y en la redacción y ejecución de Proyectos de Urbanización, así como en el diseño, características y colocación del mobiliario urbano.

Artículo 3. – Elementos de urbanización.

3.1.– Definición.

Se consideran elementos de urbanización a cualquier componente de las obras de urbanización, entendiéndose como tales, pavimentación, abastecimiento y distribución de aguas, saneamiento y alcantarillado, distribución de energía eléctrica, gas, telefonía y telemática, alumbrado público, jardinería y todas aquellas otras que materialicen las indicaciones de los instrumentos de desarrollo del planeamiento urbanístico.

3.2.– Itinerarios peatonales.

1.– El trazado y diseño de los itinerarios públicos o privados de uso comunitario, destinados al tránsito de peatones o al tránsito mixto, de peatones y vehículos, se realizará de forma que se garantice la accesibilidad.

2.– Las especificaciones técnicas del diseño y trazado serán las siguientes:

– La anchura mínima de paso libre de obstáculos será de 2,00 m., excepto en urbanizaciones de viviendas de densidad igual o inferior a 12 viviendas /Hectárea en las cuales dicha anchura se podrá reducir a 1,50 m, siempre y cuando se instalen superficies de encuentro y giro, que permitan inscribir un cuadrado libre de obstáculos de 1,80 x 1,80 m. con una distancia máxima entre ellos de 20 m. y siempre que estén a la vista entre sí.

– La altura libre de paso en cualquier punto del itinerario será como mínimo de 2,20 m.

– Luzetarako aldapa %6koa edo txikiagoa izango da.

– Zeharkako aldapa %2koa izango da gehienez; %1,5ekoa gomendatzen da.

– Espaloien kasuan, zintarren gehieneko altuera 12 cm-koa izango da eta 1 cm-ko gehieneko erradioko harri biribildukoa edota 2 cm-ko alakatua izatea gomendatzen da.

3.– Salbuespen gisa, oinezkoentzako ibilbideen erakuntzan eremuari lotutako hirigintza-araudiarekiko edo sektorialarekiko kontraesanak agertzen direnean edota arestian adierazitako zehazpen guztiak luraren topografia dela eta gauzatzeko zailak direnean, irisgarritasuna hobekien bermatuko duten neurriak hartuko dira. Kasu hauetan, hartutako irtenbidea justifikatu egin behar da lizentzia eman aurreko udal-zerbitzuen txosten batean. Irisgarritasunerako Euskal Kontseilua jakinarren ganean egon dadin, espediente horiek helaraziko zaizkio.

(ikus 1. irudia)

3.3.– Zoladurak.

1.– Oinezkoentzako ibilbideetako zoladura gogorak irristakaitzak izango dira, piezen arteko irtenunerik gabe. Zoladura bigunak berriz, gurpil-aulkiak, makilak eta abar ez mugitzeko eta ez hondoratzeko bezain trinkoak izango dira. Ezaugarri horiek Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren Aginduz definituko dira.

